



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko urriaren 15a

102. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da Toledoko Hitzarmenean hartutako konpromisoak bete ditzan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (2. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hauren arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahastea behar bezala artatzeko eta tratatzeko neurriei buruz Arartekoak eginiko gomendioak bete ditzan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gaixotasun arraroak dituztenek “medikutorea” izeneko erreferentziazko medikua izan dezaten. Osasun Batzordeak onetsia (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Belate N-121 –Ostizko saihebidia– ardatzaren aurrekontu osoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Arga ibaian ziprinidoak hil izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Foruzaingoaren buruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, ekainaren 30eko zerga arloko diru-sarreraren egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Iruritako, Elizondoko eta Elbeteko saihebideari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Erabakia, Nafarroako Foru Komunitateko Osasun Publikoaren Plan Estrategikoari buruzko lan-talde bat eratzekoa. Osasun Batzordeak onetsia (11. or.).

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da Toledoko Hitzarmenean hartutako konpromisoak bete ditzan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernua premiatzen baita Toledoko Hitzarmenean hartutako konpromisoak bete ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko urriaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaletak eta Maiorga Ramírezek, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Aurtengo irailaren 29an, Aurrejubilatuen eta Pentsiodunen Elkarteko ordezkariak agerraldia egin zuten Parlamentuko Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Batzordean, aurrejubilatuek eta alargunek eta pentsiodunek dituzten arazoak azaltzeko.

Batzorde horretan adierazi zutenez, ez daude ados Gizarte Segurantzak pertsona aurrejubilatuei 65 urte bete arte eta kotizatutako urteak kontuan hartu gabe aplikatzen dien portzentajeen sistemarekin. Sistema horren bidez, % 8ko kenkaria aplikatzen zaie 65 urte betetzeko falta zaien urte bakoitzagatik, eta kenkari hori behin betiko bihurtzen da 65 urte betetzean. Hori guztia kontuan hartu gabe pertsona horiek 35, 40 edota 45 urte kotizatu ahal zituztela.

Era berean, adierazi zuten alargun-pentsioak zehazteko oinarri arautzaileari % 52ko portzentajea aplikatzearen ondoriozko zenbatekoak txikiak direla.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du Toledoko Hitzarmenean hartutako konpromisoak bete ditzan eta 65 urtetik aurrera kasuan kasuko pentsioaren % 100 ordain dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du hildako ezkontidearen oinarri arautzaileari aplikatzen zaion portzentajea pixkaka handitu dezan, % 52tik % 70era arte.

3. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du aipatu arazoaren konponbideak adosteko irekitzen diren negoziatioetan eta hitzarmenetan parte hartzeko aukera eman diezaien kaltetuak ordezkatzeko dituzten elkarteei.

Iruñean, 2009ko urriaren 5ean

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da haurren arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahastea behar bezala artatzeko eta tratatzeko neurriei buruz Arartekoak eginiko gomendioak bete ditzan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita haurren arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahastea behar bezala artatzeko eta tratatzeko neurriei buruz Arartekoak eginiko gomendioak bete ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko urriaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta eta Maiorga Ramírez Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin:

Zioen azalpena

Arreta-defizitak eta hiperaktibotasunak eragindako nahastea duten pertsonen familien elkarrekin behin baino gehiagotan egin dute agerraldia Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza eta Osasun Batzordeetan, beren egoeraren eta kezken berri emateko.

Arreta-defizitak eta hiperaktibotasunak eragindako nahasteak jatorri neurobiologikoa du eta hiru ezaugarri nagusi ditu: arreta mantentzeko zailtasuna, hiperaktibotasuna eta inpulsibotasuna, bai kognitiboa bai jokabideari dagokiona. Gaur egun, haurren artean eragin handiena duen nahastea da, eta, Buru-eritasunaren Diagnostikorako Eskuliburuaren IV. bertsio berrikusiaren arabera, eskola

adineko haurren % 3tik % 7ra bitarte nahaste hori daukate, intentsitate gehiago edo gutxiagorekin.

Russell Barkley, arreta-defizitak eta hiperaktibotasunak eragindako nahasteari buruzko ikerlan ugari egin eta argitaratu dituen psikiatra estatubatuarren arabera, burmuinaren sistema betearazlearen nahaste bat da. Funtzio betearazleak dira pertsonari ahalbidetzen diotenak bere jokabidea kontrolatzea, balizko etorkizunari aurrea hartzea eta, aldi berean, bere jokabidea helburuak betetzera zuzentzea. Nahaste horrek ez die haurrei bakarrik eragiten; izan ere, sintomak bizitza osoan irauten dute gehienetan.

Psikopatologia horren tratamendu egokiak integrala izan behar du, eta eraginkorragoa izaten da nahastea goiz detektatuz gero. Horretarako, beharrezkoa da irizpide egokiak eta eragin-esparru guztiekin koherenteak direnak aplikatzea.

Nafarroako arartekoak neurri sorta zabala proposatu zion Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari nahastea duten haurrak eta nerabeak detektatzeko, tratatzeko eta jarraitzeko.

Maiatzaren amaieran, Arartekoaren gomendioak direla-eta departamentu desberdinek hartutako neurriei buruz parlamentu-talde honek eginiko informazio eskaera baten ondorioz, agerian geratu zen gomendio haietako asko oraindik bete gabe zeudela, eta hori bera berretsi ahal izan dugu Andar elkarrekin nahaste horri buruz Tuteran eginiko jardunaldietan.

Hori guztia dela eta, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du haurren arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahastea behar bezala artatzeko eta tratatzeko neurriei buruz Arartekoak eginiko gomendioak bete ditzan.

Iruñean, 2009ko urriaren 7an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gaixotasun arraroak dituztenek “mediku-tutorea” izeneko erreferentziazko medikua izan dezaten.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2009ko urriaren 7an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gaixotasun arraroak dituztenek *mediku-tutorea* izeneko erreferentziazko medikua izan dezaten”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko urriaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gaixotasun arraroak dituztenek “mediku-tutorea” izeneko erreferentziazko medikua izan dezaten

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gaixotasun arraroak dituzten pertsonen izan dezatela erreferentziazko mediku espezialista –haiek *mediku-tutorea* deitzen diote–, informazioa bideratzeko eta gaixoari eta/edo familiari orientabidea emateko jaso beharreko tratamenduari buruz.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du harreman-ildoak jar ditzan abian gaixotasun arraroak ikertzen dituzten zentroekin, egiten diren aurrerabideak lehenbailehen ezagutu eta aplikatze aldera.

F saila:
GALDERAK

Galdera, Belate N-121 –Ostizko saihebidia– ardatzaren aurrekontu osoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José María Vázquez Royo jaunak galdera egin du Belate N-121 –Ostizko saihebidia– ardatzaren aurrekontu osoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko irailaren 14ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko irailaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako José María Vázquez Royo jaunak galdera egin du “N-121-A errepedeko

Belateko ardatza: Ostizko saihebidia” obraren likidazioari buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

- “N-121-A errepedeko Belateko ardatza: Ostizko saihebidia” obrako likidazioak, 2009ko abuztuaren 21ean onetsiak, 6.671.351,39 euro egiten du.

- Adjudikazioaren zenbatekoa 6.282.970,87 eurokoa zenez, obrako desbideratzea % 6,18koa izan da.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateratuko 192.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko irailaren 22an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, Arga ibaian ziprinidoak hil izanari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Arga ibaian ziprinidoak hil izanari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko irailaren 14ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko irailaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Arga ibaian ziprinidoak hil izanari buruz (PES-216). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Heriotzaren arrazoia izan da ibaian detergenteen bat edo disolbatzaileen bat isuri dela, dirudieenez Orkoiengo Industrialdeko euri-uren saretik. Isurketaren ondorioz uretan oxigenoa falta izan

da, eta horrek ibai-tarte horretan bizi diren arrainen heriotza eragin du. Arrainen heriotza horiez gainera, ez da ingurumenean bestelako eraginik atzeman.

Iruñerriko Mankomunitateko laborategiek egini-ko azterketak ikusita, ezin da ondorio zehatzik atera isuri diren eta arrainen heriotza eragin duten produktuei buruz. Hala eta guztiz ere, badirudi detergenteren bat izan zela, ibaian isurketa gertatu eta lehenengo unetan ibaian ageri zen aparrarengatik. Aukera gutxiago daude disolbatzailearen bat izateko, ikuskapenetan eta hildako arrainen bilketan aritu ziren foruzainek eta Departamentuko

ingurumenzainek ez baitzuten sumatu produktu horiek izaten duten usain bereizgarria.

Arrazoi zehatzak ezagutzen ez direnez eta isurketaren zuzeneko erantzulea identifikatzerik izan ez denez, ezin dugu zehaztu gertatutakoa berriz ez gertatzeko inongo neurririk, nahiz eta, noski, ohiko zaintza eta kontrol neurriekin jarraituko dugun antzekorik berriz gerta ez dadin.

Hori jakinarazten dut, Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko irailaren 25ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, Foruzaingoaren buruari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Foruzaingoaren buruari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko irailaren 14ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko irailaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Foruzaingoaren buruarekin lotutako zenbait gairi buruz (PES-217 gisa sailkatuta). Hona

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Foruzaingoaren burutzan eta haren titularrean ez da inongo aldaketarik izan bere garaian Legebiltzarrean emandako idatzizko informazioan, hain zuzen erantsitako dokumentuetan jasotakoan. Dokumentu horiek 2007ko abenduaren 13ko Bilkura Egunkaritik eta 2008ko maiatzaren 8ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialetik atereak dira.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2009ko irailaren 28an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Javier Caballero Martínez

Galdera, ekainaren 30eko zerga arloko diru-sarreraren egoerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du ekainaren 30eko zerga arloko diru-sarreraren egoerari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko irailaren 14ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko irailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du ekainaren 30era arte izandako diru-sarrera fiskalaren egoerari buruz, atal guztiei zegokienez. Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

1. 2009ko ekainean metaturiko diru-bilketa likidoaren egoeraren laburpen-taula bat erantsi dugu. 2008ko aldi berarekiko alderaketa ere ageri da.

Iruñean, 2009ko irailaren 15ean

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

KONTZEPTUA	2009ko dirubilketa likidoa	2008ko dirubilketa likidoa	% Dirubilketa likidoa 09/08 (%)	2009ko aurrekontua (%) 2008ko aurrekontuaren gainean	2009ko aurrekontua (%) 2008ko abenduko dirubilketa likidoaren gainean	2009ko aurrekontua (%) 2008ko aurrekontuaren gainean	2009ko aurrekontuaren gainean	2009ko aurrekontuaren gainean	2009ko aurrekontuaren gainean	2008ko dirubilketa likidoa (%) 2008ko aurrekontuaren gainean	2008ko dirubilketa likidoa (%) 2008ko aurrekontuaren gainean
KONTZEPTUA											
Laneko errenten gaineko atxikipenak	529.139.755	532.752.125	-0,68	5,27	28,84	56,33	1.101.400.000	1.101.400.000	48,04	53,30	53,30
Kapitaleko errenten gaineko atxikipenak	67.261.431	62.335.212	7,90	26,76	6,33	-29,28	156.159.000	156.159.000	43,07	64,00	64,00
Zatiketak	25.240.553	27.204.312	-7,22	5,86	7,34	-22,65	57.465.000	57.465.000	43,92	47,45	47,45
Kuota diferentziala	-213.035.502	-163.947.421	29,94	86,74	9,26	-19,20	-125.589.000	-125.589.000	182,27	368,49	368,49
PFEZA. GUZTIRA	408.606.237	458.344.228	-10,85	2,85	28,84	56,33	1.189.435.000	1.189.435.000	34,35	41,30	41,30
Kapitalaren atxikipenak	28.826.391	27.096.160	6,39	25,07	6,33	-29,28	66.848.000	66.848.000	43,12	63,34	63,34
Konturako ordainketa	93.049.234	33.429.591	178,34	6,33	7,34	-22,65	151.838.000	151.838.000	61,28	15,57	15,57
Kuota diferentziala	24.783.516	16.751.548	47,95	7,34	9,26	-19,20	239.487.000	239.487.000	10,35	5,41	5,41
SOZETATEAK, GUZTIRA	146.659.141	77.277.300	89,78	9,26	28,84	56,33	458.173.000	458.173.000	32,01	13,63	13,63
Ez-egoliarrak	6.297.392	6.435.412	-2,14	28,84	28,84	56,33	14.554.000	14.554.000	43,27	69,12	69,12
Iraungitako zergak	0	275	-28,04	-7,34	-7,34	3,57	44.350.000	44.350.000	33,57	48,31	48,31
Oinordetzak	14.887.018	20.686.558	-28,04	-7,34	-7,34	3,57	44.350.000	44.350.000	33,57	48,31	48,31
Ondarea	2.068.336	8.309.241	-75,11	-100,00	-100,00	-100,00			#DIV/0!	12,62	12,62
ZERGA ZUZENAK, GUZTIRA	578.518.124	571.053.014	1,31	0,31	0,31	-4,92	1.706.512.000	1.706.512.000	33,90	31,82	31,82
BEZA. DIRUBILKETA ZUZENA	249.924.289	324.005.247	-22,86	7,97	7,97	-19,85	746.330.000	746.330.000	33,49	34,79	34,79
Alkoholen gaineko zerga berezia	20.272.766	21.459.065	-5,53	-2,43	-2,43	2,37	14.492.000	14.492.000	33,93	45,31	45,31
Zerbezaren gaineko zerga berezia (1)	2.044.147	2.141.526	-4,55	9,53	9,53	-1,46	4.537.000	4.537.000	48,71	41,89	41,89
Tarteko produktuen gaineko zerga bereziak	73.305	82.841	-11,51	13,99	13,99	-25,27	185.000	185.000	59,11,12	3145,69	3145,69
Garraioaren gaineko zerga berezia	5.477.233	8.499.032	-35,55	3,03	3,03	1,12	16.916.000	16.916.000	32,38	37,54	37,54
Hidrokarburoen gaineko zerga (1)	104.252.517	118.695.506	-12,17	3,85	3,85	4,93	215.567.000	215.567.000	53,40	59,39	59,39
Elektritzitatearen gaineko zerga	11.189.493	10.775.143	3,85	-0,35	-0,35	4,93	21.746.000	21.746.000	51,46	51,99	51,99
Tabakoaren gaineko zerga	62.271.087	59.142.872	5,29	16,15	16,15	3,85	154.448.000	154.448.000	40,32	39,77	39,77
DIRUBILKETA ZUZENAKO ZERGA BEREZIAK, GUZTIRA	205.580.549	220.795.985	-6,89	-6,86	-6,86	0,85	427.891.000	427.891.000	48,05	52,04	52,04
BEZA	100.597.965	85.671.899	17,42	17,42	17,42	-5,12	286.806.000	286.806.000	35,08	28,34	28,34
Alkoholen eta tarteko produktuen gaineko zerga berezia	-15.355.715	-15.045.606	2,06	2,06	2,06	-5,12					
Zerbezaren gaineko zerga berezia	165.950	-212.990	-177,91								
Hidrokarburoen gaineko zerga	10.862.264	7.907.220	37,37								
Tabakoaren gaineko zerga	7.745.241	-3.416.102									
ESTATUAFERIKO DOIKUNTZAK, GUZTIRA	104.015.705	74.904.422	38,86								
							286.806.000	286.806.000	37,78	24,78	24,78

KONZEPТУA	2009ko dirubilketa likidoa	2008ko dirubilketa likidoa	% Dirubilketa likidoa 09/08 (%)	2009ko aurrekontua (%) 2008ko dirubilketa likidoaren gainean	2009ko aurrekontua (%) 2008ko aurrekontuaren gainean	2009ko AURREKONTUA	2009ko dirubilketa likidoa (%) 2009ko aurrekontuaren gainean	2008ko dirubilketa likidoa (%) 2008ko aurrekontuaren gainean
Ondarezko transferentziak	18.029.688	28.261.280	-36,20	0,45	-41,45	49.444.000	36,46	33,46
Egintza jurid. dokum.	18.721.359	23.358.343	-19,85	-2,57	-26,98	42.297.000	44,26	40,33
Aseguru primen gaineko zerga	9.520.694	10.728.161	-11,26	4,36	-3,73	21.083.000	45,16	48,98
Hidrokarbuoen txikizakako salmenten gaineko zerga	10.941.083	11.223.681	-2,52	6,60	10,29	24.085.000	45,43	51,40
Iraungitako zergak	2	0						
ZEHARKAKO ZERGAk, GUZTIRA	616.733.350	693.277.119	-11,04	10,51	-13,34	1.597.936.000	38,60	37,60
ZERGAk, GUZTIRA	1.195.251.474	1.284.330.133	-5,46	4,99	-9,18	3.304.448.000	36,17	34,75
Joko makinaren gaineko tasa	3.118.454	3.272.005	-4,69	-4,35	-7,13	6.250.000	49,90	48,62
Bingo jokoaeren gaineko tasa	2.922.998	3.479.371	-15,99	8,30	-7,01	7.160.000	40,82	45,19
Zorizko kombinazioko jokoaren gaineko tasa	34.485	19.774	74,40	35,19	-7,14	65.000	53,05	28,25
JOKOAREN GAINEKO TASAK, GUZTIRA	6.075.938	6.771.150	-10,27	2,13	-7,07	13.475.000	45,09	46,70
Meategien azaleraren gaineko kanona	3.550	-22	-16557,21	128,38	650,00	7.500	47,33	-2,16
Telefonikaren kanona	57.527	43				100.000	57,53	
Joko-kartoen salmenta	52.580	62.590				130.000	40,45	
Zehapen fiskalak	4.847.951	3.559.596	36,19	89,79		14.000.000	34,63	
Gerorapenen korrituak	1.765.451	1.730.156	2,04	162,47	9,03	9.660.000	18,28	19,53
Premiamendu-errekargua	1.948.196	1.705.733	14,21	86,01	4,05	6.300.000	30,92	28,17
Beste diru-sarrera batzuk	2.073.266	2.086.517	-0,64	-100,00				
TASAK ETA BESTELAKOAK, GUZTIRA	16.824.459	15.915.764	5,71	36,86	6,09	43.672.500	38,52	38,66
TRIBUTUAK ETA BESTELAKOAK, GUZTIRA	1.212.075.933	1.280.245.897	-5,32	5,31	-9,01	3.348.120.500	36,20	34,79
Aplikatzeko dauden kobrantzak	0	0						
Tributuz bestelako dirubilketa	2.651.107	1.264.247	109,70					
DIRUBILKETA LIKIDOA, GUZTIRA	1.214.727.040	1.281.510.144	-5,21	5,24	-9,01	3.348.120.500	36,28	34,83

Galdera, Iruritako, Elizondoko eta Elbeteko saihesbideari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Iruritako, Elizondoko eta Elbeteko saihesbideari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko irailaren 14ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko irailaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Angel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Irurita-Elizondo saihesbidearen proiektuari buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna.

Irurita-Elizondo saihesbidearen proiektuari Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren otsailaren 24ko 14/2009 Foru Aginduaren bitartez eman zitzaion behin betiko onespena. Onespen hori 2009ko martxoaren 23ko 35. NAO on argitaratu zen.

Aurrerago, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak Baztan ibaiaren gaineko Elizondo hiriguneko zubirako baimena emateko jartzen zituen arazoengatik, eta ikusita zubiaren eraikuntzak ez zuela

baldintzatzen gainerako obren exekuzioa, proiektua bitan zatitzea erabaki zen. Beraz, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren ekainaren 19ko 58/2009 Foru Aginduaren bitartez, proiektua bitan zatitu zen: "Irurita-Elizondo saihesbidearen eraikuntza" eta "Irurita-Elizondo saihesbidea antzinako 121-B errepidearekin lotzeko zubia eraikitzea". Haiek lizitatzeko oinarritzko aurrekontu gisa 12.208.960,20 euro eta 820.117,82 euro ezarri ziren, hurrenez hurren. Lehendabiziko proiektuan, saihesbidearen enbor nagusiaren obrak sartzen dira –orain, lizitazio fasean dago–, eta bigarren proiektuan, berriz, saihesbidea eta 121-B antzinako errepidea lotzeko zubiaren eraikuntza sartzen da –Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren baimena lortzen denean lizitatuko da.

Kontratazio espedientea Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren uztailaren 3ko 68/2009 Foru Aginduz onetsi zen, eta uztailaren 3an bertan argitaratu zen kontratazio-atarian, Gobernuak 2009ko martxoaren 2an kontratazioa baimentzeko erabakia hartu ondoren. Obrak epe laburrean adjudikatuko dira, eta 18 hilabeteko epean exekutatuko dira.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateratuko 192.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko irailaren 24an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Erabakia, Nafarroako Foru Komunitateko Osasun Publikoaren Plan Estrategikoari buruzko lan-talde bat eratzekoa.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 113. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Foru Komunitateko Osasun Publikoaren Plan Estrategikoari buruzko lan-taldea eratzeko erabakia, Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak 2009ko urriaren 7an onetsia. Hona erabakiaren testua:

“**1.** Osasun Batzordean Nafarroako Foru Komunitateko Osasun Publikoaren Plan Estrategikoari buruzko lan-talde bat eratzea.

2. Lan-taldearen xedea izanen da irizpen bat egitea, non gai honetan beharrezkotzat jotzen diren proposamenak, ideia eta behar guztiak jasoko baitira.

a. Parlamentu-taldeek beren proposamenak aurkeztuko dituzte, lana bera eta proposamenei buruzko eztabaida zehazteko.

b. Lan-taldeak askotariko estamentu, pertsona, aditu eta gizarte-eragileei euren iritzia eta proposamenak eskatu ahalko dizkie.

3. Eginarazitako lana amaituko da aho batez edo gehiengoak onetsiriko ondorioak eta proposamenak biltzen dituen dokumentu bat egitean.

4. Lana amaitzeko epea 6 hilabetekoa izanen da, eta luzatu ahalko da.

5. Erabaki hau Legebiltzarreko Mahaiari jakinaraztea, beharrezkoa dena xeda dezan aipatu lan-taldearen osaerari eta funtzionamenduari buruz”

Iruñean, 2009ko urriaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

